



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO IRAILAREN 22KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Bilera berezia.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2014.09.22.

Ordua: Goizeko 20:30etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.

Zinegotziak:

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Teodoro Pikabea Zubieta jn.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Mikel Leiza Etxeberria jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO 2014-2020 EPEALDIRAKO LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA.

1.-NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO 2014-2020 EPEALDIRAKO LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA.

Arantzako Udalarari dagokionez, IFZ P3102200G, 30,2 km²-ko azalera eta 2013ko Estatistika Institutu Nazionalaren eroldaren arabera 634 biztanle dituena, Nafarroako Foru Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) toki-garapenerako neurriaren barnean (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak % 53an batera finantzaturik) 6. lehentasunean, "Landa-eremuetan gizarteratzea, pobrezia gutxitzea eta garapen ekonomikoa sustatzea" deritzonean, parte hartzeari dagokionez,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esklusiboki parte hartzea "Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programan", 2014an idatzia eta 2014-2020 aldian 'Cederna Garalur Elkarte' (IFZ: G-31372063) tokiko ekintza-taldeak kudeatua, Nafarroako Foru Erkidegoko 2014-2020 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) toki-garapenerako

neurriaren barnean, 6. lehentasunean, "Landa-eremuetan gizarteratzea, pobrezia gutxitzea eta garapen ekonomikoa sustatzea" deritzon.

Erabakia hartu da Arantzako udalerria ondoren aipatzen diren xedapenetan jasotako laguntzetara bildu ahal izateko. Xedapenak honako hauek dira: Europako Parlamentuko eta Kontseiluko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduko 28. artikulutik 31ra bitarteko xedapenak; EGEF, EGF, kohesio-funtsa, LGENF eta FEMP xedapen komunak, 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen dutenak; eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduko 42. artikulutik 44ra bitarteko xedapenak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bitartez (LGENF) landa-garapean laguntzeari buruzkoak, Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen dutenak.

2)Udalbatzako kideek badute 'Cederna Garalur Elkarte' tokiko ekintza-taldeak Arantza udal-barrutian, Nafarroako Foru Erkidegoko 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako programaren (LEADER) 4. ardatzaren barnean (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak % 53an batera finantzaturik) egiten duen lan onaren berri.

3)Udalak, lehenengo puntuan aipatutako 1303/2013 (EB) Erregelamenduko 33. artikulua betetze aldera, 'Cederna Garalur Elkarte' tokiko ekintza-taldearekin "Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programan" parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

4)Udalak, halaber, tokiko ekintza-taldeko batzorde betearazleak edo horren baliokideak ezarriko dituen kuotak ordaintzeko konpromisoa hartzen du, funts publikoek estaltzerik ez duten zatian taldearen funtzionamenduaren kostua finantzatze aldera.

5)"Nafarroako Mendialdeko 2014-2020 epealdirako toki-garapenerako partaidetza-programaren" kudeaketaren barnean, 2014-2020 epealdian tokiko ekintza-taldeak deituko dituen bilera guztietara joateko konpromisoa hartzen du udalak.

6) Ebazpen hau 'Cederna Garalur Elkarte' tokiko ekintza-taldeari (IFK: G-31372063) helaraziko zaio behar diren ondorioetarako eta Udalbatzari hurrengo bileran onartu dezan.

Bertzerik gabe, gaueko 9:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea jn.



The image shows a handwritten signature in blue ink on the left, a circular official stamp in the center, and another handwritten signature in blue ink on the right. The stamp is light blue and contains the text 'ARANTZAKO UDALA' at the top and '2013' at the bottom, with a central emblem.